

## Ospitalera autobusa jartzeko eskatu dute auzo elkarteek

Bilera eskatu dute Arantxa Tapia mugikortasun diputatuarekin eta, herriko autobusari buruz jakiteko, Ana Urchueguia alkatearekin

**L**asarte-Oriako bizilagunen elkarteek Ospitaletara autobus zerbitzua jartzeko eskatu diote idatzi baten bidez Gipuzkoako Foru Aldundiko Arantxa Tapia Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako arduradunari. Lasarte-Oria, Zabaleta, Erdigunea, Oztabide eta La Esperanza auzoetako elkarteek bat egin dute eta astearte goizean Donostian aurkeztu zuten Arantxa Tapiarentzako idatzia. Bilerak eskatu ditu elkarteak Tapia diputatuarekin eta Ana Urchueguiarekin.

Astearte goizean, bi eskaera egin zituzten Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteek.

Batetik Udalean izan ziren, herri barruko eta ospitalerako autobus zerbitzuen gaia berriro aztertu dadin Ana Urchueguia alkatearekin bilera eskatzen.

Eta bestalde, Donostian Foru Aldundiaren bulegoetan Arantxa Tapia Mugikortasun diputatuari zuzendutako idatzia aurkeztu zuten, lehenbailehen Lasarte-Oria eta Ospitalen arteko autobus zerbitzuari buruzko bilera egiteko eskatuaz.

### Ondoko herrietan bai

Idatzian auzo elkarteek salatzaren dutenez harrিতa daude Lasarte-Oriatik ez delako Ospitaletara autobusik jarri, beste herri batzuetan bezala.

"Asko poztu gara Buruntzaldeko zenbait herrietako bizilagunek Ospitaletara autobus zerbitzua izango dutela eta Bidasoa, zein Urola erdia



Aurreko asteko bileran Foru Aldundiko eta Udaleko ordezkariekin harremanetan jartzeko erabakia hartu zuten.

eskualdetatik ere antzeko zerbitzua jartzeko asmoa dagoela jakitean," a diezaten dute.

"Baina harrিতa gaude, Lasarte-Oriatik, 18.000 biztanle baino gehiago dituen eta Ospitaletatik 6 kilometro-ra dagoen herriak aukera berdinekin ez izatea," jarraitzen dute.

### Egoera eta ondorioak

Era berean, Lasarte-Oriako herritarrek bi garraibide erabili beharra aipatzen dute eta egoera horrek sortzen dituen ondorioez ere mintzo dira.

"Behar den denbora eta kilometroak bi aldiz egiten segi beharko dugu derrigorrez, eta sarri bi garraibide desberdin erabiliz gainera, horrek sortzen dituen ondorio

eta eragozpenak pairatuz, alferrikako joan-etorriak, keisurketen gorakada, ibilgailu pribatuen gehiegizko erabilera, toki publikoen okupatzea, eta abar. Jakina da inork nahi ez dituen eta behar ez diren ekonomi-gastuak eragingo dituela horrek gainera," diote.

Honetaz gain, Foru Aldundiaren jokabidea zuzenean kritikatzeko dute lasarteoriarrak, "gure harrিতa handiagoa da garraibideen etorkizuneko hobekuntzetaz mintzatzen direnean ez delako Diputazioan 2007ko otsailan elkarrekin aurkeztu, aztertu eta adostu genuen proposamena aipatzen."

Horregatik lehenbailehen gai hau jorratzeko premiazko bilera egiteko eskatzen diote

Arantxa Tapiari Lasarte-Oriako auzo elkarteek.

### Herri barruko autobusa

Honetaz gain, arestian aipatu bezala, Lasarte-Oriako alkatearekin elkarriketatuta nahi dira elkarteak. Izan ere, premiazkatat duten herri barruko autobus zerbitzua, ez baita oraindik martxan ezarri.

Esperientzia pilotoa egin zen, 2008ko mugikortasun astean, eta aurrekontuetan zerbitzu horretarako dirua bereizi zen. Baina ez dute beste berririk izan. Horregatik, ekimenaren egoera jakin nahi dute.

Hori jakiteaz gain, Ospitalerako autobusen gaia ere jorratu nahi dute, Udalak ere Aldundian horren alde egin dezan. •



Erantzun ona izan du Ttakunek antolatutako duen sendabelarren ikastaroak /4

### ALBISTEA ■ 5

**Gasteizko hiria ezagutzeko aukera izan dute Oinatz elkarteeko partaideek**

### KIROLA ■ 6

**Donostiako nazioarteko LV. krosa igande honetan hipodromoan**

### ALBISTEA ■ 8

**Barbo arrain ugari hilik agertu dira Oria ibai bazterrean**



## GURUTZETA SAGARDOTEGIA

ZATOZ TXOTX EGITERA!

**SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI**

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURALEAN

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)  
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

**Neure kabuz**



**Hi(e)zkuntza**

Euskara, beti izan da nire hizkuntza, nire ama-hizkuntza, maite eta baloratzen dudana, eta nire zatitzat ulertzen dudana, euskaldun askoren moduan. Hezkuntza ere, euskaraz, ikastolan jasotakoa naiz. Jende ugari, horrelako aukerarik izan ez badu ere, haien kabuz, beranduago, lortu dute hizkuntza ikastea, eta hau, haiena den zerbait bezala sentitzea, eta maitatzea.

Noski, bada gure gizartean euskaraz mintzo ez denik ere. Eta baita euskara jakin, baina hau tresna soil-tzat, titulaziotzat, ulertzen duen jendea ere. Hiru talde hauen arteko aurkaritzatik, arazo ezberdinak sortu daitezke hizkuntzaren arloan, hala nola, nortasun arazoak, kulturalak edota politikoak (hizkuntza bat politika izatera heldu badaiteke behintzat), beste askoren artean.

Gaur egun, askok eta askok, hezkuntza, maite dugun euskara horretan jasotzea erabaki dugu, hau, bermaturik beharko genukeen eskubidea dela gutxi ezbaidatuko luketen zerbait delarik (nahiz egon, baden saiatzen denik). Baina berme hau sarritan kolokan geratu ohi da, aipatutako hizkuntza arazoak, batzuetan, testuinguru honetara ere heldu baitaitezke (hitza irakaskuntzaren oinarri izanik). Hezkuntza kalitate arazoak sortzen dira horrela ikasle edo irakasleen aldetik, nahiz kaltetua beti berdina izan; euskara.

Beraz, lan asko egin beharra dago oraindik gure hizkuntza eta hezkuntzaren arteko behin-betiko integrazio eta normalizazio prozesuan, nahiz, nik, personalki, nahiago dudana ezinezkorik ez dela pentsatu.

**Txado Arrizabalaga**

**Zorion-agurrak**



**Nerea**

Zorionak zure 5. urtebetetzean, gurasoak, aiton-amonak eta izebaren partetik.



**Merche eta Imanol**

Zorionak bikote! Larunbatekoa zuen kontu! Jalgu-betetzean, gurasoak, aiton-amonak eta izebaren partetik.



**Amaia**

Zorionak printzesa. Guraso eta familiaren partetik. Sei muxu goxo.



**Haizea**

Zorionak xalamera eta 15 muxu pottolo. Naroa, Andrea eta familiaren partetik.



**Aroa**

Zorionak guraso eta familiaren partetik. Muxu handi bat polita!



**Aitona Pako**

Zorionak eta muxu handi bat senideen partetik.



**Karla**

Zorionak printzesa! Marrubizko muxu potoloak familia guztia- ren partetik.



**Leire**

Zorionak potxoli zure lehenengo urtebetetzean Maialen eta familia guztia- ren partetik.



**Enaitz**

Zorionak Enaitz 3 urte jada! Muxu handi bat aitaxo, amaxo eta arrebaren partetik.



**Koro**

Zorionak zure urtebetetze egunean etxeko guztion partez. Muxu handi bat.



**Amaia**

Zorionak Morena! Ondo, ondo pasa. Badakizu zeintzun partetik!



**Peru**

Zorionaaaaak!!! Peru handi! Bi esku behar dituzu kontatzeko. 6 muxu handi.

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berri berria. Bikotearentzat egokia. Harremanetarako telefonoa: 657 708 866.

• Lasarten logela alokatzen da pisu konpartitu batean. Interesaturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezakete.

• Gela bat alokatu nahi dut sukaldaria erabiltzeko eskubidearekin. Lasarte-Orian edo inguruan. Prezioa da. 690 068 365, itxiki, deitu iluntzetan, 19:00etatik 20:00ak bitartean.

• Etxe eguzkitsu bat alokatzen da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu. Harremanetarako telefonoa: 628 904 130.

**Salerostaketak**

• Egoera onean dagoen umeentzako arropa eta hainbat tresna salgai: bi sehaska, bikientzako ahulkia neguko zakuekin, eta abar. Arropa gordetzeko konpromezua.

Prezioa 450 euro, negoziagarriak. Harremanetarako, isa.g.77@gmail.com edo smsak 687 756 358 zenbakira.

• Salgai autorako 4 hagu (lanta) 195/ 50r 15 neurrikoak. Harremanetarako telefonoa: 638 421 713.

• Salgai inauterietako 3 jantzi, 2 Obelixenak eta 1 Axterisenak. Tel.: 638 421 713.

• Argazki kamara salgai. Sony Cyber Shot Dsc h2, 6 megapixel, 12x, Carl Zeiss lentea. Gran angularra eta teleobjektibo. Honekin batera guzti hau eramateko motxila 1. Prezioa 400 euro. Harremanetarako telefonoa: 605 763 341 itxiki.

**Lan-eskaintzak**

• Tabernari euskaldun bat behar da, extra moduan lan egiteko (asteburuetan) Lasarte-Oriako taberna batean. Harremanetarako telefonoa: 629 951 931.

**Oharrak jartzeko:**

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com  
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4, 20160 Lasarte-Oria

\* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

<p><b>Jaiotzak</b></p> <p>Aratz Samsó Camino, urtarrilaren 16an</p>	<p><b>Heriotzak</b></p> <p>Mª Teresa Labandibar Iriberrri, urtarrilaren 21 ean 90 urte zituela</p>
---	--

**Guardiak**

- Ostirala, 29**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Larunbata, 30**  
Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567
- Igandea, 31**  
Urbistondo, San Frantzisko 1  
Tel.: 943 366567

- Astelena, 1**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Astearte, 2**  
Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774
- Asteazkena, 3**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529
- Osteguna, 4**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFako Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Sarrietuetako batzuk argazkia atera zuten eta 6. mailako neskek kasuan, opariak jantzi eta erakutsiz.

## Landaberri Antzerki Eskolako zozketako sariak banatu ziren

Santo Tomas egunean Ttakunek antolatzen zuen azokan, Landaberri Antzerki Eskolak zozketa burutu zuen; atzo, berriz, sariak banatu zituen, Jalgi kafe antzokian.

### Sariak eta sarituak

M<sup>a</sup> Dolores Uriari Txitxardin Beltza jatetxean 2 pertsonentzako afaria suertatu zitzaion, Jexuxa Esnaolak, berak onartu bezala, probetxu handia atzerako dio 2009-2010 ikasturte-

rako antzerki edo dantza matrikulari eta Pirritx eta Porrotxen loteak, kirol jertsea eta Irrien Lagunak kda, berriz, Antzerki Eskolan dauden 6. mailako gaztetxo batzuei egokitu zitzaion. •

## “Desnudos en Central Park” antzerki umoretsua Kultur etxean

Ezinbestekoa al da telebistan ateratzea gizartearen arreta lortzeko? Gizon-emakumeen talentu eta bertuteak ez al dira nahikoak arreta gureganatzeko? Kamera baten aurrean edozer egiteko prest al gaude ezagunak bilakatzeko asmoz?

Gai horien inguruan eta umore adimentsuz jorratuta aurkezten zaigu *Desnudos en Central Park* antzezlan Lasarte-Orian.

Manuel Galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini izango dira larunbatean Manuel Lekuona Kultur Etxean obra hau antzeztzen.

Bi emanaldi eskainiko dituzte gainera, arratsaldeko 20:00etan bata eta bestea gaueko 22:00etan, biak gaztelaniaz eta 12 eurotako sarrerarekin.

Antzezlari hau Eusko Jaurlaritzaren *Antzerkia Bultzatu* ekimenaren baitan ikusi ahal dugu gure herrian.

Honen bidez, arte eszenikoaren sektorean enpleguak eutsi nahi du Gobernuak eta



horretarako, Udalen laguntza ere izan du.

### Antzezlan

Mark Rowellen komedia zoragarri hau Jaime Azpilicuetak zuzendu du. *Desnudos en Central Park* obrak ikuslearen-tzat oso hurbilekoa den pertsonaia-unibertso txiki bat deskribatzen du. Ezohiko muntaia da, barre-algaraz betea, orain arte umorezko antzerkian ikusitakotik erabat

aldentzen dena.

Obrari darion komedia-maila handiak eta gizarte-kritika dosiak lehenengo unetik harrapatzen ditu ikusleak. Eta, era berean, maitasunaz, porrotaz, guraso eta seme-alaben arteko harremanez eta komunikabideen manipulazioez hitz egiten duen obra honen osagaiak edertzen dituzte.

Barre algarak ziurtatutak daude, ez galdu aukera. •

### IKASTAROA

#### Janari-manipulatuzaile karneta eskura

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaileen karneta ateratzeko ikastaro berri bat antolatu du, arrisku handiagokoa, hau da, ostalaritzako sektoreari zuzendua.

Ikastaroa otsailaren 3an eta 4an eskainiko da, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan. Ordutegia, 16:00etatik 19:00etara izango da. Informazio gehiago jasotzeko edo izen emateko, deitu 943 533 303 telefonora. •

### AKATSAK ZUZENTZEN

#### Saneamendu-sareko lanak 19 astez

Aurreko zenbakian, aurreratu genuen bezala, atzo Lasarte-Oria eta Usurbil udalerrien saneamenduko interzeptore orokorreko lanak hasi ziren Zumaburu kalean.

Artikulu honetan, lanek 19 hilabeteko iraupena izango dutela zioen arren, Udaletik ohartarazi digute bidali ziguten oharrean akatsa zegoela eta 19 astez, soilik, egongo direla lanak Zumaburu eta Ola kale inguruan. •

### ATERPEA

#### Herriko dendatan erosteagatik beherapenak eta promozioak

Lasarte-Oriako Aterpea merkatarien elkarteak jakin arazten du, herritarrek elkartearen erostekak eginez gero, beherapen eta promozio txartelak eskuratuko dituztela Aterpeko edozein saltokitan erabiltzeko. •

### ATXILOKETA

#### Estolderiako tapa batekin leihoa hautsi zuen

Igande goizean, 32 urteko gizona atxilotu zuen Ertzantzak, Lasarte-Oriako taberna batean lapurreta egiteagatik. Tabernako leihotako bat estolderiako tapa batekin txikitu eta barrura sartu zen. Auzotar batek soinau entzun eta Ertzantzara deitu zuen. Patrula-auto batek susmagarria inguruetan aurkitu zuen, whisky botila eskuan zuela eta zauria buruan. •

### BATERAGUNE

#### Rafa Diez eta berarekin atxilotuak auziperatu ditu Garzon epaileak

Urriaren 13an, Rafa Diez, Arnaldo Otegi, Miren Zabaleta, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez, Amaia Esnal, Txelui Moreno eta Mañel Serra atxilotu zituzte. Bateragune, ezker abertzaleko zuzendaritza berria sortzea egotzi zieten orduan.

Astelehenean, Baltasar Garzon epaileak zortzi atxilotuak auzipetzea agindu zuen. Epaileak idatzitako autoan, ezker abertzaleak jarraitutako estrategia politikoa eta indar subiranistak batzeko planteamendua ETArekin aginduak jarraiki egin zutela dio. Horren ondorioz, “erakunde terroristako” kide izatea egotzi die zortzietan.

Era berean, operazio berean atzemandako Rufi Etxeberriaren kontrako delitu zantzurik ez dagoela argudiatu du Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak.

Gauzak horrela, otsailaren 10ean deklarazioa hartuko diela adierazten du Garzonek autoan. •

### TXANGOIA

#### Biyak Bat erretiratuen elkarte Malagara

Urtero legez, Biyak Bat erretiratuen elkarteak maiatzaren bukaran hamabost eguneko txangoa antolatzen du. Aurten Malaga aldera doaz, Torremolinoseira hain zuzen ere, maiatzaren 26tik ekainaren 9a arte.

Bilbotik Malagara hegazkina, autobusa, hiru izarreko hotela, mantenu osoa eta buffet librea ura eta ardoa bidaiako prezioaren barruan doaz, 500 euro logela bikoitza.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko Biyak Bat elkartearen bulegora hurbildu behar dira interesatuak otsailaren 5a baino lehen. Izena ematen dutenek, gainera, 50 eurotako bermea jarri behar dute.

Antolatzaileek jakin arazi dute, bidaiak egiteko gutxieneko zenbatekoa, 45 pertsona direla. Beraz, animatu zaitezte. •



# Sendabelarren ikastaroak arrakasta eta erantzun handia izan zuen

■ Jendeak gaiari buruz interesa agertu zuen eta ukenduak egiten parte hartu zuen ■ Etorkizunean beste ikastaroren bat antolatzeke asmoa du Ttakunek

Aurreko belaunaldian, zenbait etxetan hainbat gaixotasuni aurre egiteko garaian sendabelarrak erabiltzeko ohitura handia zegoen. Askok amonei edo amei entzundakoa dakite, izan ere, belaunaldiz belaunaldi igaro den jakintza dugu sendabelarrena, nahiz eta azken urteetan galdu den.

Astelehen arratsaldean, Ttakun kultur elkarteak antolatuta, Sendabelarren Ikastaroa eskaini zuten Pilar Eizmendi eta Kontxi Amenabarrek Xirimirri elkartearen.

Ikastaroak arrakasta handia izan zuen. Antolatzaileen hitzetan, "azpimarragarria da herritar ugari bildu direla eta adin guztietakoak gainera".

## Ukenduak

Gehiena erabili eta entzute-tsuenak diren belarrei buruzko azalpen batzukin hasi zen ikastaroa. Irakasleek eraman-dako landareak aztertu eta

ukenduak egiteko prozesu osoa ikusi ahal izan zuten. Izan ere, Pilar Eizmendi eta Kontxi Amenabarrek ukendu bana egin baitzuten, intsusa eta alo vera landareekin.

Bi ukendu hauek azalarekin zer ikusia duten gaitzak desagertarazteko balio dute eta egiteko errazak dira.

Pilarrek, esate baterako, ikastaro aurretik lan egin behar izan zuen, intsusa oliotan egosiz. Izan ere, belar honek denbora egon behar du oliotan, bi ordu gutxi gorabehera.

## Guztiak parte hartu

Hala ere, irakasleak ez ezik, ikasleek ere parte hartu zuten, batzuk aloea garbitu eta barruko gelatina atera zioten, besteek argizaria txikitu zuten...

Sukaldeak akelarrea zirudien, guztiak lapiko baten inguruan, landareak oliotan egosten edo argizaria urtzen eta, hori guztia, antzinatik erabili diren sendabelarrei buruz hitz egiten.



Lapiko eta zartagi inguruan bildu ziren guztiak intsusa eta alo vera landareekin ukenduak nola egin ikasteko.

Ikastaroaren amaieran, ukenduak etxera eramateko aukera izan zuten guztiak.

## Ezagutza partekatu

Ikastaroak landare edo belarrik ezagutzeko balio bazuen ere, bakoitzak zuen ezaguera partekatzeko era bat ere izan zen.

"Interesa azaldu zuten guztiak eta haiek ezagutzen zituzten belarrei buruz hitz egin zuten ere. Aberasgarria izan zen" azaldu digute antolatzaileek.

Honetaz gain, sendabelarrei buruzko beste ikastaro bat antolatzeke prest agertu dira antolatzaileak.

"Herritarrek mundu honi buruz gehiago jakiteko asmoa agertu zuten eta etorkizunean beste ikastaro bat prestatzeko ahaleginak egingo ditugu," azaldu dute. •

## Aloe Verarekin egindako ukendua

### Osagarriak:

- 150 gr. Aloe Vera gelatina
- 300 gr. Almendra olio
- 60 gr. argizari

### Prestatzeko era:

- Aloe landareari hostoen barrutik gelatina atera.
- Su motelean olioa jarri eta bertara bota gelatina.
- Aloeari zuku guztia atera zuntza bakarrik geratu arte.
- Iragazi, argizaria erantsi eta epeldu argizaria desegin arte.
- Pototan sartu eta izena jarri.

### Onugarria da:

- Azaleko gaitzak, ezemak, psoriasis edo orbainak, desagerta arazteko.
- Hidratatzaile bezala ere erabili daiteke.



Ikasleek ere parte hartu zuten prozesuan, argizaria txikitzen, esate baterako.



# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362386



# Menditik hirira salto egin du Oinatzek

Hamabost lagunek Gasteiz moderno eta aintzinakoa ezagutu zuten euriari muzin eginez

Pasa den igandean goizeko 09:00etan abiatu ziren Gasteizera Oinatz taldekoak. Normalean mendi buelta izaten den irteera, oraingoan hiribarneko zirkuitua bihurtu zen. Artium Museoan hasi zen bisita, ondoren Alde Zaharraren historia ezagutu zuten, bazkaldu eta eguna amaitzeko, Gasteizko katedralean izan ziren.

## TXINTXARRI

**E**z-ohiko irteera prestatu zuten oraingo honetan Oinatz taldekoek. Normalean mendi buelta antolatzen badute ere, oraingoan Gasteiz hiribarnea ezagutzeko zirkuitua antolatu zuten. "Gasteiz bezalako hiriak merezi du antolatu dugun bisita antolatzek eta ohiko gure ibilbideak aldatzek" adierazi dute Oinatzekoek. Irteera ezberdina, kulturala eta kontraste handikoa burutu dute oraingoan, Gasteizko alde moderno bisitatzeko gain, bere alde klasikoa ere ez zuten galdu nahi izan.

### Desastre baten ondorioa

Oinatzekoek jakin zuten, "kotxe aparkaleku bat izan behar zuena, Artium Museoan bilakatu zen azkenean", lanak hasi zituen enpresak porrot egin eta Gasteizko udalak orubea erosi eta gero. Horrela, Arabako diputazioak

dituen hiru mila inguru arte laneko bildumari irteera bat emateko bidea izan zen, eta baita ikusleek eurretaz gozatzeko aukera paregabekoa ere. "Gida baten laguntzaz museo honetako arte lan bitxiak ulertu eta eurretaz disfrutatzeko aukera izan genuen".

Oinatzekoek besteak beste erakusketa iraunkorra bisitatu eta denborari buruzko arte lanak ikusi zituzten Artiumen: "sarreran lanpara modukoa ikusi genuen, 15.000 piezekin. Mekanismo baten bidez haizeak mugiaraztean ateratako soinua irudikatzen du". Ordu betez Artiumek ezkutatzeko dituen artelanetan murgiltzeko aukera izan zuten Oinatzeko kideek.

### Hiria ezagutzen

Irteera guztietan egiten den bezala, oraingoan ere, Oinatzeko kide batzuek Gasteiz buruzko datu historikoak eskaini zizkieten beste talde-



Gasteiz hiria izan zuten oraingoan Oinatzekoek ikusgai. Ederki disfrutatu zuten ez-ohiko irteera honetaz.

kideei. Alde Zaharra eta Matxete plaza bisitatu zituzten, eta urtero Zeledonek egiten duen jaitsiera ibilbidea gertutik ikusi zuten. Han bertan, Andra Mari Zuriaren plazan energiak berreskuratu, eta ondoren, kafea hartzeraz abiatu ziren, Oinatzeko kide batek bere ikasle garaian ezagututako taberna batera.

### Katedralean barre algarak

Barre algararekin ekin zitoten katedraleko bisitari, "dutzarako antzeko txapel bat jantzi

behar izan genuen, eta gainean kaskoa katedralera sartu baino lehen". Edozein istripu-tatik babesteko janzkera eta kaskoak, barre algar ugari eragin eta argazkien flashak dantzan jarri zituen.

Gasteiz nola sortu zen ezagutu ondoren katedralari buruzko argibideak jaso zituzten Oinatzeko kideek "arkitekturari buruzko hiztegi luzea ikasi genuen, historia handiko katedrala da". Zuta-beak mugituak daude, arkuak deformatuak, bisita luzea eta

"interesgarria" izan zen, Oinatzekoek iritziz: "gainera zintzo portatuz gero amaieran txokolatina bat ematen dizute, eta guk lortu genuen".

Gasteizko historiaz jantzita bueltatu ziren herrira Oinatz taldekoak, "kantu zaharrak kantatuz, poz-pozik iritsi ginen etxera".

Egun pasa interesgarria egin eta gero, orain hurrengo irteeraren zain daude Oinatzekoak. Martxoan, Goierri aldera joko dute ziurrenik, Segura, Zerain... ingurura. •

## SANTA TERESA IKASTETXEA

**2 URTEKOEN GELA** : 1-2 urte D Eredua  
**HAUR HEZKUNTZA** : D Eredua  
**LEHEN HEZKUNTZA** : B Eredua  
**DBH** : B Eredua  
**BATXILERGOA**

**EUSKARA, GAZTELANIA ETA INGELESA (CIM proiektua)**  
**AUKERAN: FRANTZESA**

**TUTORETZA: ARRETA PERTSONALIZATUA**

**INGURUGIROAREKIN KONPROMISOA: AGENDA 21**

**KALITATEAREKIN KONPROMISOA: EFQM**

**ZERBITZUAK**

- Jangela (propioa)
- Autobusa
- Eskolaz kanpoko ekintzak: kirol jarduerak eta jarduera kulturalak
- Haurtzaindegia (07:45etik 09:00era)

**Manuel de Lardizabal Pasealekua, 25 • DONOSTIA 20018**  
**Tel.: 943 211764 / 943 214294 • Faxa: 943 217477**  
**E-maila: secretaria@santateresa-ikastetxea.com**  
**www.santateresaikastetxea.com**

**ATE IREKIAK**  
**Otsailaren 5ean 15:30ean**

## SUGATE SUGATE SUGATE

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

**Pintore Kalea 5 • Tel./Faxe: 943 361471**  
**Lasarte-Oria**  
**www.sugate.net**

**FORMA** La compra inteligente

**7 GARANTIA** ANONIMO VARRANTY

**12** años de experiencia

**vegasa** Mejor Ahorro en el hogar



Kiroletako oharrak

**Pala Txapelketa**

Ostadar K.Fak XVI. Gomazko pilotako Pala txapelketako izena emate epea ireki da. Bikote bakoitzak 22 euro ordaindu behar ditu inskripzioa egiterakoan.

Era berean, oinarriak eskuratzeko Ostadarreko bulegora, Geltoki kalea 25 zenbakira hurbildu edo 943 360 433 telefonora deitu behar dutela ere azpimarratu dute, otsailaren 5a baino lehen.

**Ostadarreko zozketa**

Ostadarrek nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasa zozketatu du eta zenbaki irabazlea "el niño" loteriako azken lau zenbakiekin bat etorri dena izan da: 8588. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegotik pasa edo 943360433 telefonora deitu beharko du.

**Igerilekua itxia**

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, igeri txapelketa dela eta Udal Igerilekua datorren larunbatean, urtarrilaren 30ean, goizez, 13:00ak arte itxia egongo dela erabiltzaileentzako.

Andoain, Usurbil edo Urnieta udaletako instalakuntzak erabili ditzakete herritarrek.



# Donostiako nazioarteko krosa igande honetan hipodromoan

■ Proba ezagunak Donostia 2016 Sari Nagusia izena hartu du ■ Gipuzkoako kros txapelduna izendatzeko lehia ere ikusiko da igandeko lasterketa denetan

Hilabete hasieran jo zuen alarmak, egoera ekonomikoa zela eta ohitura handiko lasterketa, LV. Donostiako Nazioarteko krosa bertan behera geratzeko arriskuan zen.

Baina Gipuzkoako Atletismo Federakuntzak Kutzaren eta Donostiako Udalaren babes eskuratu eta igande honetan egingo da proba Donostiako Hipodromoan.

**Txapelketa nagusia eta Gipuzkoako txapelketa**

Emile Zatopek, Mariano Haro, Sergey Lebed... Horiek dira Donostiako Nazioarteko krosean parte hartu duten korrikalarietako batzuk.

Igande honetan, ere atleta nabarmenen presentzia izango dugu Hipodromoan.

Asteartean, Mike Kegen atleta keniatarraren parte hartzea baieztatu zuen Gipuzkoako Atletismo Federakuntzak.

Korrikalariak Le Mans eko krosean garaipena lortu zuen urtarrilaren 13an eta aurrekoan Antrimeko krosean.

Baina asteburu honetan garaipena ez du erraza izango. Chakir Boujattoui marokiarra, Dino Sefir kenia eta Samuel Tsegat eritrearra edo Alberto Garcia, Eliseo Martin,



Goizeko 10:30ean hasten dira lehenengo lasterketak gaztetxoena, azkenak nazioarteko probak izango dira 13:00ak aldera.

Jose Rios eta Rafa Iglesias Behobia-Donostia lasterketako irabazleak, gogor lehiatuko dira eta saria eramateko.

Emakumeetan, Rosa Morato Europako txapeldun ordea, Kalovics iazko irabazlea eta Konovalova erusiarra lehiatuko dira txapela eskuratzeko.

Hala ere, nazioarteko korrikalari hauek gain, bertako korrikalariak ikusteko aukera ere egongo da. Izan ere, lasterketa guztietan Gipuzkoako txapelketa egongo baita lehian.

Herriko atletek ere parte hartuko dute, hala nola, LOKEko Guillermo Huguet jubenilak edo Antoniano taldeko Olatz Flores kadeteak.

**Donostia 2016 Sari Nagusia**

GAF eta Kutxa, akordio batera iritsi dira, aurten Donostiako Nazioarteko Krosak, Donostia 2016 Sari Nagusi deitura har dezan.

Erabaki honen ondorioz, GAF-ek, Donostiako hiririari, 2016ko kultura hiriburutzat

kandidaturari lagunduko dio.

**Eskertza**

Aldi berean, Donostiako Udalarri egindako ahalegina eskertu nahi dio.

Antolatzaileek Kutzari ere eskertu nahi diote, urtero eman izan ohi duen laguntza ekonomikoa mantentzeagatik, egungo egoera ekonomikoa zailari aurre eginez.

Era berean, aipagarri da, sarreraren salmentaren etekineren parte bat Haitiko lurrikararen biktimei zuzenduko zaiela. •

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 30**

- 10:30ean, Eibartarrak-Ostadar (Partehartze infantilak, kopa) Unbe, Eibarren.
- 11:30ean, Texas Lasartearra-Ostadar (I. Jubenila, Kopa) Michelinean.
- 13:15ean, Ostadar-Vasconia (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Michelinean.
- 15:30ean, Ostadar-Touring (Gorengo Erregionala) Michelinean.
- 17:15ean, Ostadar-Mariño (Jubenilen Ohorezko maila, igoera) Michelinean.

**Igandea 31**

- 10:30ean, Ostadar-Behobia (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinean.
- 12:00etan, Lagun Onak-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-1 I, kopa) Garmendipe, Azpeitian

- 12:15ean, Ordizia-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Altamira, Ordizian.
- 13:15ean, Vasconia-Ostadar (I. Kadetea, igoera) Martutene, Donostian.
- 16:00etan, Segura Goierri-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Alustiza, Seguran.

**FUTBOL 7**

**Igandea 31**

- 09:00etan, Faro de Higuera-Spartak de Obelix (III. Maila) Don Bosco, Pasaian.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 30**

- 18:00etan, Allerru Algeposan-Aldaz H.K. (Nazional B maila) Bekoerrota kiroldegia, Lezon.
- 18:00etan, Tolargi-ISU Leihoko (Gipuzkoako Liga, I. maila) Usabal kiroldegia, Tolosan.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**Michelingo areto-futboleko guneak**

**Ostirala 29**

20:30ean, Izkia-Ainhoa

**Larunbata 30**

- 10:15ean, Tragoxka-Morrison
- 11:15ean, Obelix-Buenetxea
- 12:15ean, Epel-Siglo XX
- 13:15ean, Viña del Mar-Lekuona Mena
- 17:00etan, Oria krist.-ISU Lei.
- 18:00etan, Izarra-Mingallon

**Igandea 31**

- 10:00etan, IOB H.K.-Okela
- 11:00etan, Biyona-Ilargi

**ATLETISMOA**

**Ostirala 29**

- 18:00etan, Landaberriko gaztetxoak Partaidetza Mugagabeko probetan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

**Larunbata 30**

17:00etan, LOKEko atletak Partaidetza Mugagabeko probetan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

**Igandea 31**

10:30ean, herriko atletak LV. Donostiako Nazioarteko krosa Donostia 2016 Sari Nagusian eta Gipuzkoako kros txapelketan parte hartuko dute, Hipodromoan.

**IGERIKETA**

**Larunbata 30**

10:00etan, Buruntzaldea Igeriketa taldeko gaztetxoek Kirol Zehaztasun Ligako 2. jardunaldian parte hartuko dute kiroldegian.

**JUDOA**

**Larunbata 30**

18:00etan, LOKEko alebinek

Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioan parte hartuko dute Tolosan.

**Igandea 31**

- 10:00etan, LOKEko Leire Zubizarreta, Esteban Martinez eta Iñaki Elizalde junior mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute, Lezon.
- Ostean, LOKEko judoka infantilek Gipuzkoako txapelketako sailkapen saioan parte hartuko dute.
- 17:00etan, LOKEko judoek 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.

**BOLA-JOKOA**

**Igandea 31**

Egun osoa, Ostadarreko bol jokalariek bikotekako txapelketan parte hartuko dute Seguran.

## Egunero

### Erakusketa

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.



## Ostirala, 29

### Kontzertua

NAYADE abesbatzaren emanaldia Danok Kide Elkarreak antolatutako V. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



## Magia saioa Sustrai tabernan

Bihar iluntzean, magia saioa izango da Sustrai tabernan Rafafa mago lasarteoriarraren eskutik. Rafafa magoaren truko eta trikimailuak ikusteko aukera aparta beraz.

BIHAR, LARUNBATA 30  
SUSTRAIN, 20:30EAN

### Antzerkia

KLOWNTUZ! MENDIA! Iana eskainiko du Kili Kolo Antzerki Taldeak. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.



## Larunbata, 30

### Antzerkia

DESNUDOS EN CENTRAL PARK umorezko antzezlan eskainiko da Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Manuel Galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini ditugu antzezleak. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, bi saio eskainiko dira, bata 20:00etan eta bestea 22:00etan. GAZTELANIAZ.

## Igandea, 31

### Zinea

LLUVIA DE ALBONDIGAS filma haurrentzako zinea atalean

ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



## Astelehena, 1

### Hitzaldia

ARRETA PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA ezagutzera emateko Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutak hitzaldia hitzaldia emango du. Emakumeen Zentro Zibikoan, 18:00etan.

## Asteazkena, 3

### Hitzaldia

ARRETA PSIKOLOGIKOAREN ZERBITZUA ezagutzera emateko Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutak hitzaldia hitzaldia emango du. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:30ean.

## Liburutegiko ordutegia



Manuel Lekuona kulturetxea

Astelehenetik ostiralera  
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

## ESAZU IRRATIA



## Esazu irratiko programazioa

### Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzte ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

## Oharrak

### Etixerat elkartearen elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

### Odola emateko eguna

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasan Zentroan 18:30etik 21:00etara.

### Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitzete parte hartzera!

### Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimenduaren lagunak taldeak eskerrak eman nahi diz-

kie abenduaren 24an egindako eskean dirua eman zuten guztiei. Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez. Mila esker!

### Amarau ludotekan matrikula irekita

Amarau ludotekako ardura-dunek bigarren hiru hilekoaren matrikulazioa zabalik dagoela jakinarazi nahi dute. Matrikula egiteko edo informazio gehiago jasotzeko, jo Ttakunera, 943 371448, edo ludotekara bertara (Ola kalea 1, behe). Animatu, Amarau ludotekan jolastu, ikasi eta ondo pasatuko duzue!

### Marrazki eta pintura eskola

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarreak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseak hasi dituztela dagoeneko eta oraindik izena emateko aukera dagoela. Klaseak Kultur Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

### Erketz taldearen inauterietako konpartsa

Erketz Dantza Taldean jakinarazi nahi du inauterietako beraien konpartsan ateratzeko, entsaioak urtarrilaren 26an eta otsailaren 2 eta 9an (astereteetan) izango direla Zumaburuko eskolatan iluntzeko 8etan.

Gaia Munduko Dantzak da, ze herrialdeko mozorroa pareja bakoitzak erabaki behar du.

Gero dantzak denok batera egingo ditugu. Edonorentzako dago zuzendua, asteartean azaldu besterik ez du egin behar, bai bai ume edo bai heldu.

### Santa Ageda eskea datorren ostegunean

Erketz Dantza Taldea urtero ateratzen da otsailaren 4an Santa Eskean. Aurtengo entsaioa urtarrilaren 29an, ostirala, izango da Zumaburuko eskolan iluntzeko 8etan. Parte hartu nahi duenak, entsaioa azaltzea besterik ez du.

### Tokila bat agertu da gabonetan

Gabonetan erdigunean haurrentzako tokila bat agertu da. Artilezkoa da, beltza. Galdu duenak berreskuratzeko Ttakunetik pasa dadila (943 371448).

### Zumaburu-Sasoeta ikastetxea

Zumaburu-Sasoeta ikastetxeak aurrematrikula irekiko du otsailaren 1ean, astelehenero. Horregatik, otsailaren 2an, astearte, arratsaldeko 16:45ean Zumaburuko jantokian, bilera informatiboa egingo du 2008. urtean jaio diren haurren gurasoentzat.

### Landaberri ikastolan aurre matrikulazioa

Aurrematrikula garaia laster irekiko denez, Landaberri ikastolak bilera informatiboa egingo du 2007. eta 2008. urtean jaio diren haurren gurasoentzat, otsailaren 2an, astearte, arratsaldeko 15:15ean Garaikoetxea erakinean.



### Inauteriak

Aurten ere Ttakun Kultur Elkarreak deialdi zabala egin nahi die herritarrei inauterietako desfile bateratua parte hartzeko. *Filmak* izan da aukeratutako gaia. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiraletan bilerak egingo dira Iñigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean 17:00etan. Edozein zalan-tzarekin deitu edo pasa lasai Ttakunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com



Eguzki talde ekologistako kideek Aliriko zubiaren parean aurkitu dituzte barboak hilik.

Hiladako arrainak handiak dira irudian ikusi daitekeenez.

Argazkiak EGUZKI

## Barbo arrain ugari hilik agertu dira Oria ibaian

Eguzki talde ekologistak jakinarazi duenez segur aski aurreko asteko lixiba isurketaren ondorio izan daiteke

**E**guzki talde ekologistak Oria ibaian hainbat barbo arrain ur gainean hilik agertu direla jakinarazi du aste honetan eta zenbait argazki bidali ditu Txintxarriren bulegora. Hain juxtu Zubietan Aliriko zubi parean aurkitu dituzte hildako barboak ibai bazterrean.

Eguzkiko partaideek argazkiekin batera bidalitako testuan talde ekologistak aurreko astean Urnietan izan zen istripu eta lixiba isurketarekin lotzen du arrainen agerpena. Argazkietan ikusi daitekeenez arrain handiak dira.

Honela dio Eguzkik, "Barbo ugari hilik Orian" izenburua duen testuan: Barbo ugari hilik ikusi daitezke Oria ibaian, Aliriko zubi parean. Arrain handiak dira, berrogei eta berrogeita hamar

*Aurreko astean hamar mila litro lixiba isuri ziren Urnietan eta Orian uste baino kalte handiagoa izan dela dirudi*



zentimetro bitartekoak. EGUZKIkook argazki batzuk atera eta atxikita bidaltzen dizkizuegu.

### Isuri kutsakorra

"Ez da guztiz segurua, baina, itxura guztien arabera, hilketa hau lotuta dago astelehenean Urnietan izan zen istripuarekin. Produktu arriskutsuak garraiatzen zituen kamioi batek beste baten kontra jo eta, horren ondorioz, 10.000 litro lixiba isuri ziren. Horietatik asko Akan errekarara joan ziren, Urumea bailarara, alegia. Beste batzuk, berriz, Ziako errekarara, hau da, Oria bailarara. Bazirudien isuri kutsakorren eragin nabarmena Urumeakoan gertatuko zela, baina, antza denez, Orian ere uste baino kalte handiagoa izan da". •



Uretan agertu dira hilik arrainak. Eguzkiren ustez lixiba isurketaren ondorioz.

# OTEGI

SAGARDOTEGIA  
SOLLAENEA BASERRIA



- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029